

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	BITARTEKO ESZENIKOETARAKO ETA IKUS-ENTZUNEZKO PRODUKZIOETARAKO MAKILLAJE-TEKNIKEN APLIKAZIOAK	Iraupena	70
		Berariazkoa	
Kodea	UF1228		
Lanbide-arloa	Irudi pertsonala		
Lanbide-eremua	Estetika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Makillaje integrala	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Bitarteko eszenikoetarako eta ikus-entzunezko produkzioetarako makillajea (zeharkakoa)	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Aurpegiko eta gorputzeko fantasiazko makillaje-tekniken aplikazioa (zeharkakoa)	Iraupena	50

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0066_2 BITARTEKO ESZENIKOETARAKO ETA IKUS-ENTZUNEZKO PRODUKZIOETARAKO MAKILLATZEA gaitasun-ataleko LB5 eta LB1, LB2, LB3, LB4 eta LB7 lanbide-burutzapenekin, bitarteko eszenikoetarako eta ikus-entzunezko produkzioetarako makillatzeari dagokionez.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Ikus-entzunezko bitartekoetan eta jarduera nahiz arte eszenikoetan higie- eta segurtasun-kondizioetan makillatzeko protokoloak definitzea.

- EI1.1 Makillatzeko behar den informazioa identifikatzea, arduradun artistikoari eta proiektuan parte hartzen duten profesionali galdetuta.
- EI1.2 Bitartekoen ezaugarri tekniko eta artistikoen, makillajearen prozeduretan eta emaitzetan eragina duten ezaugarrien, zerrenda egitea.
- EI1.3 Film-motak, kolore-temperaturak eta argiztapen-intentsitateak makillajearen eragina azaltzea.
- EI1.4 Zuzeneko bitarteko eta ikuskizunetako makillaje-protokoloen elementuak, egitura eta edukiak azaltzea.
- EI1.5 Ikus-entzunezko bitartekoetako eta zuzeneko ikuskizunetako makillaje-protokolo normalizatueta azaldu behar duten funtsezko alderdiak eta prozedurak sekuentziatzeko modua zehaztea.
- EI1.6 Zuzeneko bitartekoetan eta ikuskizunetan larruzalaz prestatzeko eta makillatzeko erabiltzen diren teknika, tresna, kosmetiko nahiz produktuak eta haien oinarri eta aplikazioak deskribatzea.
- EI1.7 Zuzeneko bitartekoetarako eta ikuskizunetarako makillatzeko protokoloak prestatzeko kasu praktikoa batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:
 - Lan egingo den bitartekoaren ezaugarriak identifikatzea.
 - Protokoloak jaso behar dituen egitura, atalak eta abar aipatzea.
 - Laneko protokoloa egiteko balioko duen oinarritzko dokumentua prestatzea.
 - Makillaje-taldeko kideen jarduerak zehaztea eta tenporalizatzea.
 - Fase bakoitzean erabiltzen diren teknikak eta produktuak zehaztea eta tenporalizatzea.

A2: Pertsonen ezaugarri fisikoak aztertzeke metodoak aplikatzea, eta ikus-entzunezko bitartekoetako eta zuzeneko ikuskizunetako makillajearen aplikatu beharreko zuzenketekin eta efektu optikekin erlazionatzea.

- EI2.1 Makillajearen ezaugarriekin lotutako informazioa deskribatzea: arduradun artistikoari eskatu behar zaio informazio hori.
- EI2.2 Larruzal-moten ezaugarriak, makillatzeko kosmetikoen hautaketan eragina dutenak, deskribatzea.
- EI2.3 Aurpegiaren eta aurpegiaren desproporzio edo diskordantzia estetikoak zehazteko erreferentzia gisa hartu behar diren neurri erlatiboak azaltzea.
- EI2.4 Ikus-entzunezko bitartekoetarako makillatzean aurpegiaren eta aurpegi-atalen morfologiari egiten zaizkion zuzenketak identifikatzea eta deskribatzea.
- EI2.5 Argilun-teknikaren bidez sakontasun handiagoko eta txikiagoko guneak aurpegiko zer zuzenketekin lortzen den azaltzea.
- EI2.6 Ikus-entzunezko bitartekoetarako makillatzeko aurpegia eta aurpegiaren aztertzeke kasu praktikoa batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela, zuzenketa argiak eta ilunak egin behar diren aurpegi-guneak eta -elementuak identifikatzea.
- EI2.7 Pertsonaren ezaugarri kromatikoak aztertzeke kasu praktikoa batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:
 - Larruzalaren kolorea eta larruzalak izan ditzakeen alterazio kromatikoak —gorriuneak, hiperkromiak eta abar— identifikatzea.
 - Begien eta ilearen kolorea identifikatzea eta bero edo hotz gisa sailkatzea.
 - Makillaje-kosmetikoen kolore-harmonia zehazteke irizpideak ezartzea.
 - Datuak fitxa teknikoan idaztea.

A3: Ikus-entzunezko produkzioetarako eta zuzeneko ikuskizunetarako makillajeak bitartekoaren eta makillaje-estiloaren arabera eta higiene-eta desinfekzio-arau egokiak hartuz aplikatzeko beharrezko kosmetiko, material eta tresnak hautatzeko eta prestatzeko metodoak aplikatzea.

EI3.1 Bitartekoetarako makillatzeko behar diren tresnak —pintzelak, belakiak, espatulak eta abar— identifikatzea.

EI3.2 Larruazala garbitzeko eta prestatzeko behar diren kosmetikoak identifikatzea.

EI3.3 Ikus-entzunezko bitartekoetarako eta produkzio eszenikoetarako makillatzeko behar diren kosmetiko-motak eta haien estaltzeko ahalmena azaltzea.

EI3.4 Tresna, material eta osagarrien higiene- eta desinfekzio-arauak azaltzea.

EI3.5 Tresnak eta materialak garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko kasu praktiko batean, tratatu beharreko materialaren (pintzelak, belakiak, borlak eta abar) konposizioa ezagutzen dela:

- Material-multzo bakoitzean ohikoenak diren kutsatzaile-motak azaltzea.
- Material-mota bakoitzerako desinfekzio- eta esterilizazio-metodo egokiena hautatzea.
- Zer tresna eta material garbitu, desinfektatu edo esterilizatu behar den arrazoiak emanez azaltzea.

EI3.6 Makillajeak, ezpain-margoak, begietako arkatzak eta betile-maskarak infektiorik ez transmititzeko nola manipulatu behar diren zehaztea.

A4: Bitarteko ikus-entzunezkoetarako eta eszenikoetarako makillaje-produktuak aplikatzeko teknikak trebezia eta haien forma kosmetikoaren arabera erabiltzea, eta lortu nahi diren emaitzekin erlazionatzea.

EI4.1 Kosmetikoen estaltzeko ahalmenaren garrantzia eta horrek makillajearen erresistentzia nahiz iraupenarekin duen erlazioa deskribatzea.

EI4.2 Oinarri-makillajeak haien forma kosmetikoaren arabera aplikatzeko teknikak deskribatzea.

EI4.3 Bezeroa babesteko, prestatzeko eta kokatzeko neurriak deskribatzea.

EI4.4 Makillaje-oinarriak aplikatzeko kasu praktikoetan, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:

- Testura hautatzea, makillajea erakutsiko den bitartekoaren arabera lortu nahi den estaldura eta iraupena aintzat hartuta.
- Hura emateko belaki-mota hautatzea.
- Makillaje-oinarria arrastatzeko eta ukitu homogeenak eginez emateko teknikak erabiliz aplikatzea, nahi den emaitza lortu arte.

EI4.5 Kosmetiko delineatzaileak eta begietako nahiz bekainetako itzalak aplikatzeko erabiltzen diren teknikak azaltzea.

EI4.6 Ezpainak delineatzeko eta makillatzeko erabiltzen diren teknikak eta kosmetikoak azaltzea.

EI4.7 Begien inguruan kosmetikoak aplikatzeko kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:

- Bitartekoaren ezaugarri teknikoak, makillajearen eragina dutenak, identifikatzea.
- Forma kosmetikoak eta kolorea hautatzea.
- Pintzel egokiak hautatzea.
- Begien morfologiaren eta bitartekoaren ezaugarrien arabera zer zuzenketa egin behar diren identifikatzea.
- Itzalak eta delineatzaileak lausotzeko, bat egiteko eta delineatzeko teknikak erabiliz eta aurreikusitako emaitzaren arabera aplikatzea.

EI4.8 Betile-kosmetikoak aplikatzeko kasu praktikoetan, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:

- Gunea prestatzea.
- Maskara-mota eta -kolorea hautatzea.
- Teknika espezifikoarekin aplikatzea.

EI4.9 Koloretea emateko kasu praktikoetan, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:

- Koloretearen forma kosmetikoa eta kolorea hautatzea.
- Tresnak hautatzea.
- Forma kosmetiko bakoitzerako egokiak diren teknikekin koloretea ematea.

EI4.10 Makillajea finkatzeko hauts edo produktu espezifikoak aplikatzeko kasu praktikoetan:

- Kosmetikoak hautatzea.
- Hautsak izanez gero, pintzela, belakia edo borla hautatzea.
- Hautsak pintzelarekin edo belaki edo borla pixka bat zanpatuz aplikatzea.
- Finkatzailea ezaugarrien arabera aplikatzea.

A5: Zenbait makillaje-mota aplikatzea, bitartekoaren ezaugarri teknikoari, pertsonari eta pertsonaiari egokitzuz.

EI5.1 Makillatu aurretik informazioa biltzeko kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:

- Lan egingo den bitartekoaren ezaugarriak identifikatzea.
- Arduradun artistikoari makillajearen ezaugarri buruzko informazioa eskatzea.
- Makillajearekin erlazioa duten beste alderdi batzuei —jantziak, argiztapena, ile-apainketa— buruzko informazioa biltzea.
- Makillaje-mota eta -estiloa definitzea.

EI5.2 Bezeroa babesteko, prestatzeko eta kokatzeko neurriak deskribatzea.

EI5.3 Makillaje-akaberak desberdintzea, kosmetikoaren loditasunari eta kolore-intentsitateari dagokienez.

EI5.4 Argiak makillajearen zer eragin duen azaltzea eta makillaje-testuran eta -kolorean zer efektu eragiten dituen bereiztea:

- Argi naturala.
- Argiztapen artifiziala.
- Argiztapen-mota bakoitzaren kalitatearen, kolore-tenperaturaren eta -intensitatearen desberdintasunak.
- Argiztapen-motak.

E15.5 Plano-mota bakoitzak makillaje-akaberan duen eragina azaltzea.

E15.6 Zinemarako eta telebistarako makillatzeko kasu praktiko batean:

- Makillajearen ezaugarri buruzko informazioa biltzea arduradun artistikoarengandik eta lantalde tekniko eta artistikoko profesionalengandik.
- Ingurune, estudio eta kanpoaldeetako kondizioak, temperatura eta abar identifikatzea.
- Makillajea zer plano-motatan erakutsiko den identifikatzea.
- Makillaje-estiloa eta -ezaugarriak definitzea.
- Kosmetikoak hautatzea: testura, koloreak, estaltzeko ahalmena eta abar.
- Telebistarako makillajearen kasuan, kolore gorrixkek nahi den asetasun-maila dutela egiaztatzea.
- Kosmetikoek distira sor dezakeen osagairik ez dutela egiaztatzea.
- Makillaje-kosmetikoak forma kosmetikoaren eta lortu nahi diren emaitzen arabera teknika espezifikoak erabiliz aplikatzea.
- Gune edo hazpegi jakin batzuk nabarmentzeko edo minimizatze beharrezko zuzenketak egitea, koloreen, zuzenketa argi eta ilunen, lerroen eta abarren bidez.
- Makillajearen bidez larruazalari kolore- eta testura-uniformetasuna ematea eta integratzea.
- Kosmetiko finkatzailea aplikatzea: hautsak, finkatzaile likidoa, espraizkoa eta abar.
- Makillaje-proba egiazko argiztapenarekin eta kameraren bidez ikusiaz egitea.

E15.7 Filmatze-saio batean baino gehiagotan jarraitutasun narratiboa duen makillajea errepikatze kasu praktiko batean:

- Produktu, testura, kolore, egoera eta antzeko alderdiei buruzko datu guztiak idatziz jasotzea.
- Zer teknika erabili den xehetasun guztiekin zehaztea.
- Makillajeari argazkia ateratzea, zehatz-mehatz errepikatu ahal izateko.

E15.8 Zuzeneko ikuskizunetarako makillatzeko kasu praktiko batean:

- Makillajearen ezaugarri buruzko informazioa biltzea arduradun artistikoarengandik eta lantalde tekniko eta artistikoko profesionalengandik.
- Ingurune, areto eta kanpoaldeetako kondizioak, temperatura eta abar identifikatzea.
- Makillaje-estiloa eta -ezaugarriak definitzea.
- Kosmetikoak hautatzea: testura, koloreak, estaltzeko ahalmena eta abar.
- Makillaje-kosmetikoak forma kosmetikoaren eta lortu nahi diren emaitzen arabera teknika espezifikoak erabiliz aplikatzea.
- Gune edo hazpegi jakin batzuk nabarmentzeko edo minimizatze beharrezko zuzenketak egitea, koloreen, zuzenketa argi eta ilunen, lerroen eta abarren bidez.
- Delineatzeak, zuzenketak eta akaberak biziagotzea, hazpegiak urrutitik ikus daitezkeen.
- Kosmetiko finkatzailea aplikatzea: hautsak, finkatzaile likidoa, espraizkoa eta abar.
- Makillaje-proba egiazko argiztapenarekin aplikatzea eta zuzenketa egokiak egitea.

A6: Bitarteko eszenikoetarako eta ikus-entzunezkoetarako makillaje-prozesuen kalitatearen protokoloa ebaluatzea gogobetetze-maila ezagutzeko teknikak aplikatuz, eta desbideratzeak zuzentzeko neurriak proposatzea.

E16.1 Prozesu horien kalitatea ebaluatze alderdi garrantzitsuak identifikatzea.

E16.2 Laneko prozesuen eta lortutako emaitzen kalitatea ebaluatze irizpideak azaltzea.

E16.3 Bitarteko eszenikoetarako eta ikus-entzunezkoetarako makillajea ebaluatze kasu praktiko batean:

- Aurreikusitako emaitzekin konparatuta izan diren desbideratzeak detektatzeko teknikak deskribatzea.
- Zer fasetan gertatu diren identifikatzea.
- Lortutako emaitzak lortu nahi ziren emaitzetara egokitzeko neurriak proposatzea.

Edukiak

1. Ikus-entzunezko bitartekoetarako eta arte nahiz jarduera eszenikoetarako makillajeen protokolizazioa.

- Bitarteko eszenikoen makillajeari eragiten dioten ezaugarri teknikoak eta artistikoak.
 - Antzezlearen eta ikuslearen arteko distantzia.
 - Espazioaren eta denboraren jarraitutasuna.
 - Planoak.
 - Bi dimentsioko irudia.
 - Argia eta kolorea. Argia: mota, intentsitatea eta kalitatea. Argiztapen-motak. Kolorea: bitarteko batean eta bestean koloreek ematen duten erantzuna. Raccorda edo jarraitutasuna. Kanpoaldeetako eta platoko argiztapena. Argi-kolorimetria: Argiztapena, kolore-joerak eta -aldeak makillajearen aplikazioan, lan egiten den bitartekoaren arabera (bideoa, zinema, zuri-beltza eta koloretakoa, ikuskizunak eta abar).
- Protokoloak egiteko jarraibideak.
- Protokoloaren elementuak: Bitarteko teknikoak. Bitarteko materialak. Teknikak. Faseak. Sekuentzia. Denborak. Aplikazio-irizpideak. beste batzuk.
- Ikus-entzunezko bitartekoetarako eta arte nahiz jarduera eszenikoetarako zenbait estilotako makillajeen protokolo normalizatuak.

2 Ezaugarri fisikoen azterketa makillajea aplikatzeko.

- Larruazal-motak kosmetiko apaingarriekin erlazionatuz sailkatzea.
- Aurpegiaren morfologiaren azterketa:

- Ardatzak.
- Proportzioak.
- Geometria.
- Lerroak.
- Asimetriak.
- Aurpegiko elementuen azterketa:
 - Bekainak.
 - Begiak.
 - Ahoa.
 - Sudurra.
- Larruazal-, begi- eta ile-kolorearen azterketa.
- Larruazalaren kolorazioaren alterazioak, makillajearen eragina dutenak.
- Aurpegiaren morfologiaren azterketari buruzko makillajearen fitxa teknikoak.

3 Kosmetiko apaingarriak, materialak eta tresnak.

- Kosmetiko apaingarriak: Definizioa. Sailkapena. Konposizioa. Efektuak.
- Produktuak: alginatoa, eskaiola, latexa, silikona eta abar.
- Hautatze-irizpideak.
- Manipulatzea eta gordetzea.
- Tresnak eta materialak: Definizioa. Sailkapena. Erabilera-jarraibideak.
- Ezpainetako eta begietako kosmetikoak erabiltzean kontuan hartu beharreko arriskuak.
- Ikus-entzunezko produkzioetan eta bitarteko eszenikoetan erabiltzen diren kosmetikoak manipulatzeko segurtasun-arauak eta kontuan hartu beharrekoak.
- Makillatzeko tresna eta materialen higieena, desinfekzioa eta esterilizazioa.
- Higie-, desinfekzio- eta esterilizazio-metodoak eta -produktuak.
- Kosmetikoen fitxa teknikoak.

4 Bitartekoetako makillaje apaingarriak aplikatzeko teknikak.

- Ikus-entzunezko bitartekoetan eta bitarteko eszenikoetan erabiltzeko makillaje-produktuak aplikatzeko teknikak.
- Makillaje-oinarriak ematea: arrastatzea, bat egitea eta ukitu homogeneoak eginez ematea.
- Akats-zuzentzaileak ematea: arrastatzea eta lausotzea.
- Itzalak aplikatzea: lausotzea eta bat egitea.
- Begi-delineatzaileak aplikatzea: lerro-motak, puntuak eta abar.
- Ezpain-delineatzaileak aplikatzea: lerroak margotzea, lausotzea eta betetzea.
- Koloreteak aplikatzea: arrastatzea, zapalduz ematea eta lausotzea.
- Maskarak aplikatzea: maskara zabaltzea eta betileak orraztea.
- Hautsak aplikatzea: arrastatzea eta zapalduz ematea.
- Bitartekoaren eta makillaje-estiloaren arabera hautatzeko irizpideak.
- Bitartekoetarako makillajearen arriskuak prebenitzeko profesionala babesteko neurriak.
 - Janzkera.
 - Lanerako gomendatutako jarrera-higieena.
- Bitartekoetarako makillaje-prozesuetan bezeroa babesteko neurriak.
 - Janzkera.
 - Gomendatutako jarrera-higieena.

5 Bitartekoetarako makillaje-estiloak aplikatzeko teknikak.

- Makillatu aurreko informazio teknikoak eta artistikoa.
- Larruazala prestatzeko teknikak.
- Bitartekoetako zuzenketak eta makillajea.
- Akaberak: distiratsua eta matea.
- Argazkietarako makillajea: Argazki-platoa. Fotogenia.
- Koloretako eta zuri-beltzeko argazkietarako makillajearen ezaugarriak.
- Argazkietarako makillaje-estiloak.
 - Edertasunekoak: naturala, sport estiloa, egunekoa, gauekoa eta festakoa.
 - Azalekoak.
 - Katalogoetakoak.
 - Makillaje-estiloak aplikatzeko teknikak:
- Telebistako makillajea:
 - Telebista.
 - Telebista-platoa.
 - Telegenia.

- Makillaje-kosmetikoetako koloreen portaera.
- Telebistako makillajearen ezaugarriak.
- Bitartekoetako makillaje-estilo tipikoak: Programa-aurkezleak: albisteak, arratsaldekoak, gauekoak, ikuskizunetakoak eta abar.
- Makillaje-estiloak aplikatzeko teknikak:
- Zinemako makillajea.
 - Zinema-filmazioa.
 - Zinemarako makillajeak.
 - Tenkatzaile bidezko gaztetze-teknikak.
 - Makillaje-estiloak aplikatzeko teknikak:
- Moda-makillajea:
 - Diseinatzaileak.
 - Modeloak.
 - Sasoiko joerak.
 - Estiloak:
 - Desfileak.
 - beste batzuk.
 - Makillaje-estiloak aplikatzeko teknikak:
- Antzerkiko makillajea.
 - Bitartekoa.
 - Antzezlea.
 - Estiloak.
 - Makillaje-estiloak aplikatzeko teknikak:
- Zuzeneko ikuskizunetarako makillaje-akaberak.
- Bitartekoetarako makillajean arriskuak prebenitzeko profesionala babesteko neurriak.
 - Janzkera.
 - Lanerako gomendatutako jarrera-higienea.
- Bitartekoetarako makillaje-prozesuetan bezeroa babesteko neurriak.
 - Janzkera.
 - Gomendatutako jarrera-higienea.
- Makillaje-fitxa teknikoak: estiloa, kosmetikoak, koloreak, zuzenketak, oharrak eta abar.

6 Kalitatea ikus-entzunezko bitartekoetarako eta produkzio eszenikoetarako makillaje-prozesuetan.

- Bitartekoetako makillaje-zerbitzuen kalitate-faktoreak.
- Bitartekoetako makillajearen kalitatea definitzen duten parametroak.
- Gogobetetze-maila neurtzeko teknikak.
- Bitartekoetarako makillatzean izandako desbideratzeak detektatzeko teknikak.
- Desbideratzeak zuzentzeko neurriak hartzea.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatara sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Makillaje integrala